



**Esp. kodea:** 2023FIZE0001  
**Titularra:** MONDRAGON GOI ESKOLA  
POLITEKNIKOA (MGEP)

**Gaia:** 2023ko dirulaguntza eskaera, nazioarteko kanpua  
finantzatzeko  
**Hasiera data:** 2023/06/22

## Hitzarmena

### Arrasateko Udala eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren arteko hitzarmena

Alde batetik, Maider Morras Azpiazu, NA 15398277F duena, adinez nagusia, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, beronen izenean eta ordezkari gisa, horretarako behar bezala ahaldundua dago eta.

Eta bestetik, Carlos Garcia Crespo, NA 30627545D duena, adinez nagusia, Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren zuzendari-gerentea, erakunde horren izenean jarduteko behar bezala ahaldundua baitago.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

#### Aurrekariak:

Azken ikasturteetan, Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ikasleen mugikortasuna nabarmen areagotu da kanpora joan nahi duten ikasleen kasuan, Outgoing programaren bidez eta beraien ikasketen zati bat edo osorik gurean burutu nahi duten ikasle atzerritarrek Incoming programaren bidez.

Nazioarteko harremanen arloan 2022-2023 ikasturtean burutu den jarduerak bost esparru nagusi jorratu ditu :

- MGEP\_MUko ikasleek euren prestakuntza aldian nazioarteko esperientzia izan dezaten sustatzea.
- Atzerriko ikasleak MGEP\_MUra etortzeko joera areagotzea.
- Atzerriko unibertsitateekiko lankidetzak hitzarmenak berritzea eta bultzatzea.
- Euskal enpresen nazioartekotze-prozesua laguntzea.
- Europako proiektuak koordinatzea eta horietan parte hartzea.

Ikasleen mugikortasuna sustatzen duen egitasmo honek ikasleen ikasketak atzerrian garatzea dakar, eta hezkuntzaren berrikuntzan eragin zuzena du.

#### Klausulak:

1.-Arrasateko Udalak, gehienez, 2.500 € euroko ekarpena egingo dio Mondragon Goi Eskola Politeknikoari nazioarteko campusaren proiektuaren finantziazioan laguntzeko.

2.-Goi Eskola politeknikoak konpromisoa hartzen du kanpusaren proiektua aurrera eramateko, eta emaitzen inguruko txostena aurkeztuko dio Udalari.

Eta hala jasota geratzeko, hitzarmena sinatzen dute alde biek gaurko egunez.

Arrasateko Udalaren alkate-udalburua

MGEPko legezko ordezkaria

<b>Kodea</b>	BD23/00020	<b>Udala</b>	Arrasate/Mondragón
<b>Data</b>	2023/urr./09	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAZXFK.Q.W1XA
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXZFKQ.W1XA">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAXZFKQ.W1XA</a>		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			

